



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2012/2013 denboraldia

## 1 ZK.DUN ZIRKULARRA

### BARKAMEN NEURRIAK

Espainiako Futbol Errege Federazioaren emakidaren ondoren, estatu eremuko futbol guztirako barkamen neurrien ingurukoa, azken Europako Txapelketako Espainiako Selekzio Absolutuaren garaipena eta erakunde horren Villar Jnaren Presidente berrautaketaren ondorioz eta organismo horren zirkularreko zortzigarren atalean adierazten denari jarraiki. Euskadiko Futbol Federazioko Presidenteak, barkamen neurri horiek Euskadiko Futbol Federazio honek antolatutako lehiaketetatik eratorritako zigorretara hedatuko lituzke, futbolean zein areto-futbolean, horregatik hitzartuko da:

**Lehenengo.**- Ondoriorik gabe geratuko dira lau partidurainoko etenaldia eta kirol instalazioak bi partidurainoko eperako ixtea suposatuko luketen zigorrak.

Grazia-neurri hori aplikatu ahal izango zaio – etenaldiak falta ezberdinen eraginez gertatuko balira – zentzagarri bakoitzari eta ez baturaren guztiari.

Etenaldia ala ixtea izango balira, hurrenez hurren, lau ala bi partidu baino gehiagorako, gehiegikeria bete egin beharko litzateke.

**Bigarren.**- Barkamen neurri honetatik kanpo geratzen dira arbitroei min egitegatik ezarritako etenaldi zigorrak eta baita izaera nagusi edo osagarri ezarritako diru zigorrak.

**Hirugarren** - Barkamen-neurriak modu automatikoan aplikatuko dira, horrela, eragiten dituzten zentzagarriak erabat ala partzialki desagertuko dira, izapide gehiagorik gabe.

Eta dagozkion xedeetarako hala jakinaraziko da.

Bilbon, 2012ko uztailaren 13n.

  
JON ANDER GAMBOA AGUIRRE  
Secretario General